

## Irakurtzen duan euskaldunak bi balio ditu

*Tierra Vasca*, 124. zk., 1966-10: 7.

Euskaldunok gutxi irakurtzen degu; *euskeraz beintzat*.

Zergatik ote?

*Batetik*, txikitandik ez digute euskeraz irakurtzen erakutsi; gure errietako ikastoletan ez baizuten erderaz besterik erakusten! Eta bein zartu ezkerro zailtxoa egiten zaigu.

*Bestetik*, ez degu gure gixa irakurtzeko aukera aundirik izandu; gizonentzako ta emakumeentzako bear aundiko gai gutxi erabilli baitegu liburuetan, eta umeentzako ez baitegu liburu aukerarik beñere izandu.

Ta, noski, umeen biotzetarako eta buruetarako idatzi ez ba degu, ezin ba umeak euskeraz irakurtzen jarri; ta zarragoentzako lan bultzagarririk, eragingarririk, egin ez ba degu, ezin ba zartu ta gero gizon-emakumeak euskeraz irakurtzen jarri.

*Au ez baita beartuta egin asi liteken lana!*

Egia esan, prolema au ez da oraingoa.

Orain dala berrogei ta amar bat urte arte munduan askoz ere gutxiago irakurtzen zan; euskaldunak, berriz, ez zuten irakurtzeko bearrik sentitzen ere. Oso atzeratuta geunden. Karrerako gizonak (*kanpoan* karrera ikasitako gizonak), eskola askoko gizonak (*kanpoan* eskola asko ikasitako gizonak), ba zituzten etxean liburuak (*erderazko liburuak*) eta egunero irakurtzen zituzten izparringiak (*erderaz* idatzitako izparringiak). Bañan gañerakorik oso gutxi.

Ez, orain dala berrogei ta amar urte gure errian ez zan irakurtzeko irriki aundirik.

Bañan gauzak asko aldatu dira, ta amendik aurrera askoz ere geiago aldatuko dira. Ta aldaketa au euskeraren bidean jartzen ez ba da, aldaketa gure aurka datorkigu.

Gaurko egunean, gizonak ugaritu gera munduan, eta alkarren arteko artu –emanak ugaritzen ari dira, ta emendik aurrera alkar– izate ta alkar-jakite au geitzen eta aunditzen joango da. Artu-eman oiek bide askotatik asi gera eukitzen, bañan batez ere idatzi ta irakurri bidez egiten ditugu.

Eta munduan ziar bezela, Euzkadi'n ere bai.

Ara, ba, nola irakurtze-bideak geitzen eta garrantzi aundiagoa artzen ari diran munduan, eta Euskal Errian.

Orregatik, gaur bizirik geratuko diran izkuntzak idazten diran izkuntzak izango dira.

Len, alkar-izketan ziran komunikazioak bakarrik genitun gure errian. Gero, izparringiak eta liburuak ugaritzen asi ziranean, arderaz etorri zitzaizkigun. Eta gure erria erderara barra-barra joaten asi zitzaigun. Gaur, gure izkuntzak irakurri bideak-arkitzen ez ba ditu, izkuntza ziaro kamuztu ta ilko zaigu.

Beraz, ezin genezake euskaldunok *izketa-euskerarik* gorde, *irakurri-euskerarik* ez ba degu.

Orretarako, idazleok euskeraz liburuak gertatzen gogor asi bearren gera. Ez, gañera, *edozein liburu klase*, erriak bear-bear dituanak baizik, erriak eskatzen dituanak baizik, eta berak bear dituan *izkuntz-neurrian* eta *interes-neurrian* baizik.

Argi emen, idazleok!

Neurri onetan lan egiten ez ba degu, alperrikakoak izango dira gure lan guziak.

Bañan lan au ez da idazleontzat bakarrik; baita irakurleentzako ere. Idazleok idatzi ta iñork libururik erosi ta irakurtzen ez baditu, lan guziak alperrikakoak izango dira, ez da, ta, gure erriarekin itz egiterik izango, ta ez gera eldu bear degun tokiara elduko.

Au irakurtzen ari zeran euskalduna: euskera zabaltzeko ta indartzeko ta bear duan gaurkotasuna emateko lan au danon artean egin bear degu. Idazleok idatzi, ta euskaldun guziok irakurri.

Erosi ditzagun al ditugun liburu ta izparringi guziak, eta, *batez ere*, irakurri ditzagun, kritikatu ditzagun, aztindu ditzagun.

Bañan, orretarako, irakurri ditzagun!

Irakurtzen duan gizonak, bi gizon balio omen ditu.

Ta irakurtzen duan gizonak bi gizon balio ba ditu, irakurtzen duan euskaldunak bi euskaldun balio ditu.

Nik beste ondore bat aterako nuke gañera: irakurtzen dan izkuntzak bi balio dituala, ta irakurtzen ez dan izkuntzak ez duala laixter izkuntz bat ere balioko.